

Herritar bakoitzak 1,4 kilo hondakin sortzen ditu egunean

Urtean 1.550.868 tona zabor sortzen da Euskal Herrian, eta ia gehiena zabortegetan metatzen da

A. SARASOLA - A. RENTERIA


Gero eta hondakin gehiago sortzen da urtetik urtera. Etxeetan hainbat gai birziklatzearen kontzientzia handitzen joan bada ere, eta salbuespen txikiekin, konpostatzea bezalako tratamendu motak kasik ez dira erabiltzen Euskal Herrian, sortzen den hiri hondakin zatirik handiena organikoa izanik ere. Hala, Euskal Herri osoan dauden zabortegetan metatzen doa etxeetan egunero sortzen den zabor gehiena. Eta euskal herritar bakoitzak 1,4 kilo hiri hondakin sortzen du egunean, 518,23 kilo urtean, alegia. Orotara, Euskal Herri osoan 1.550.863 tona zabor sortzen da urtean.

Datuek diote, gainera, gero eta zabor gehiago sortuko dela etorkizunean ere. Izan ere, hiri hondakinen sorkuntza gizartearen kontsumo-ohiturei lotuta dago; gero eta ekoizpen eta kontsumo gaitasun handiagoa, orduan eta hiri hondakin gehiago sortzen da. Horren lekuko, datu bat: 1995. urtean herritar bakoitzak 454 kilogramo zabor sortu zituen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan —orotara 976.154 tona hondakin sortu ziren—. 2005.ean, berriz, 545,6 kilo zabor sortu zituen biztanle bakoitzak —1.165.799 tona orotara—. Hamar urtetan, beraz, %17 hazi da herritar bakoitzak sortutako hondakin kopurua.

Arabar, bizkaitar eta gipuzkoan sortzen den zabor gehiena (%35a) materia organikoa da. %28 papera eta kartoia, %12 plastikoak eta %9 beira. Ordea, konpostatzen den kopurua oso urria da (%2). Zaborren erdia baino gehiago (55,8) zabortegetara doa; %26,7 birziklatzera eta %15,6 errauste plantara. Nafarroan sortzen den zaborren materia organiko zatia handiagoa da oraindik: %43. Beste %20 papera eta kartoia da, %9 beira eta %7 plastikoak. Ipar Euskal Herrian, aldiz, sortzen den hondakin guztien %55 Gironako (Frantzia) errauste plantara eramaten da, eta beste %45a zabortegetara. Euskal Herria osotasunean hartuz gero zabortegetan hautua da nagusi, nabarmen gainera.

Bizkaia da, oraingoz, errausteko

HIRI HONDAKINEN PRODUKZIOA ETA TRATAMENDUA



ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKO JAURLARITZA, BIL TA GARBI

planta duen lurralde bakarra. Bigarrena egiteko nahia ere badute agintariak. Eta asmo bera dute Gipuzkoakoak, azken udal hauteskundeetan ostetik aurkako alderdiek indarra hartu badute ere. Birziklatze, konpostatze eta tratamendu mekaniko-biologikorako plantak ere badaude aurreikusita bi herrialdeotan. Ipar Euskal Herrian zabortegeta, konpostatze eta birziklatze planta gehiago iragarri dituzte ere; errauste plantarik ez, ordea, ezta Nafarroan zein Araban ere.

Nafarroa

Nafarroan 2005ekoak dira hiri hondakinen egoeraren inguruan eskuragai dauden daturik eguneratuenak. Urte hartan, 275.064 tona hiri hondakin sortu ziren herrialdean; hots, 464,3 kilogramo biztanleko. Osaerari dagokionean, hiri hondakinen kopururik handiena (%43,7) materia organikoa izan zen, eta ondoren, papera zein kartoia (%20,1), beira (%9,1) eta askotariko plastiko motak (7,4), hurrenez hurren.

Zaborrari emandako tratamenduari dagokionean, gehien gehiena hiru zabortegeta nagusietara era-

maten dute zuzenean: Iruñerriko zaborra jasotzen duen Gongorako zabortegeta, Lizarraldekoa biltzen duen Carcarrekora eta Tuterako El Culebretera eramaten dute. Azken horretan biometanizazioa ere egiten dute, eta Carcarrekoan, berriz, konpostatzea ere, zaborra zuzenean isurtzeaz gain.

Iruñerriko zaborraren arazoak

ZENBAKIA

%2

■ **Tratamendua.** Zabortegeta zaborraren %55 eramaten da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, birziklatzera %26, erraustera %15 eta konpostatzera %2 baino ez.

■ **Osaera.** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan sortzen den zaborraren %35 materia organikoa da. %28 papera, %12 plastikoak eta %9 beira. Nafarroan, berriz, sortzen den zaborraren %43 da materia organikoa. %20 inguru papera da, %9 beira eta %7 plastikoak dira.

■ **Erretzera.** Ipar Euskal Herrian sortzen den zaborren %55 eramaten da errauste plantara, eta beste %45a zabortegetara.

ez du aterabide erraza. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren asmoa zen Arazurin biometanizazio planta egitea. Eta eraikuntza ia bukatuta bazegoen ere —lanean ere hasi zen garai batean— Espainiako Auzitegi Gorenak behin betiko itxiarazi berri du, plantak gertuen duen herria bi kilometro baino gertuago dagoelako eta, beraz, legea beteko ez lukeelako.

Bizkaia

Bizkaian 628.292 bat tona hiri hondakin sortzen dira urtean, 2005eko datuei erreparatuta; 552.797 kilogramo biztanleko. Hala, Bizkaia da zabor gehien sortzen duen herrialdea oro har, baina baita biztanleko ere. Zabor horren kopururik handiena zabortegetara doa, baina beste zati bat (iaz %32 inguru) Zabalgabiko errauste plantan erretzen da. Kopuru hori bikoiztu eta %65eraino iristeko asmoa dute Bizkaiko agintariak, beste errauste planta bat egiteko xedearen alde egin baitute. Horretarako, Bilboko zaborrak jaso nahi dituzte errauste plantan. Baina oraingoz, ordea, Artigasko zabortegeta eramaten



Tuterako (Nafarroa) El Culebreteko zabortegetira eramaten

ditu hiriburuak sortzen dituen hiri hondakinak, eta gauza bera egiten jarraitzeko asmoa du. 143.000 tona zabor sortu zituen iaz Bilbok. Dena dela, bigarren errauste planta eraikitzekeko tramiteak datorren urtean hasiko dituzte agintariak.

Hala ere, hori ez da Bizkaia begira agintariak aurreikusitako azpiegitura bakarra. Eusko Jaurlaritzaren *EAE n hiri hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak* dokumentuaren arabera, konpostatzerako instalazio zentralizatu bat jarriko da, «beste zenbait instalazioen laguntzarekin». Horietan, urtean, lehen mailako hondakinen 32.000 eta 36.000 tona jasotzea aurreikusten da. Era berean, zaborraren tratamendu mekaniko-biologikorako instalazio bat egitea ere jasotzen du dokumentuak.

Gipuzkoa

Bizkaia baino atzetik, hiri hondakin gehien sortzen duen herrialdea da Gipuzkoa. 2005. urtean 378.063 zabor tona sortu zuen; 548.945 kilo gipuzkoar bakoitzeko. Zabor gehiena zabortegetara eramaten dute gipuzkoarrek ere, baina Gipuzkoan